LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# 2019ko UDAL BATZARRAK

# ASAMBLEAS DE BARRIO 2019

**Auzoa** / Barrio: **Landa-eremua** / Rural
**Eguna** / Fecha: **2019/XII/03**
**Ordua** / Hora: **18:30 – 19:45**
**Lekua** / Lugar de celebración: **Lamuza parkeko kasinoa** / Casino Parque de Lamuza

---

**Bertaratutako ordezkari politikoak /** Asistentes en representación política:

- Ander Añibarro (EAJ-PNV)
- Joseba Amondo (EAJ-PNV)
- Lamia Arcas (EH Bildu)
- Jakinda Artaraz (OMNIA) – Publikoaren artean / Entre el público

**Bertaratutako udal ordezkari teknikoak /** Asistentes en representación técnica del Ayuntamiento:

- Asier Goikouria (Obra eta Zerbitzuetako jarduneko burua / Jefe de Obras y Servicios en funciones)
- Joseba Solaun (Obren arduraduna / Encargado de Obras)
- Almudena Fernández (Udal arkitektoa / Arquitecta Municipal)
- Jon Ander Gastaka (Landa-eremuko ofiziala / Oficial de Medio Rural)
- Nerea Garaio (Landa eremuko aholkularia / Asesora Medio Rural)

---

**Gai-zerrenda /** Orden del día:

| | |
|---|---|
| 1. 2019-2023 Legegintzaldirako Planaren aurkezpena eta bideratu beharreko proiektu nagusiak<br>2. Parte hartzeko formulak azaltzea eta auzoko zinegotziaren figura aurkeztea<br>3. Galderak | 1. Presentación del Plan de Legislatura 2019-2023 y proyectos clave a desarrollar<br>2. Presentación de fórmulas de participación y de la figura de Concejal/a de barrio<br>3. Preguntas |

---

**Edukia /** Contenido:

| | |
|---|---|
| 1.- Auzoko emakume batek galdetu du ea zertan den Goienuriko Atxe basetxean argiztapen publikoa ipintzeko eskaera. | 1.- Vecina comenta en qué estado se encuentra su petición de alumbrado público en el Caserío Atxe en Goienuri |

| | |
|---|---|
| • Udaletik erantzun zaio Atxe, Launtxu eta Lusurbeilandako bihurguneko argiztapena esleitua dagoela jada. Eguzki-energiadun luminariak instalatzea erabaki da, eta udalerriko gainerako lekuetan ere gauza bera egingo da.<br>2.- Auzoko gizon batek aipatu duenez, Lusurbeilandako pista eta errepidea batzen dituen sarbidea ez dago egoera onean; kutxatila apur bat altxatzeko eskatu du, urak gainezka ez egiteko eta harririk ez ateratzeko.<br>• Udaletik erantzun zaio betoia botako dela eta ura kutxatilara bideratuko dela.<br>3.- Galmaka auzoko gizon batek hartu du hitza. Auzotik Latiorrora irteteko bidean zailtasunak daude. Esan duenez, zorua ez dago markatua eta jendeak inongo begirunerik gabe aparkatzen du.<br>Halaber, adierazi du zaramarako edukiontzi berriak instalatu eta gero zaila dela horietaraino iristea, betetzeko ahoa mendiaren aurrean dutelako.<br>Gainera, erantsi du autobidetik gertuen dagoen zebrabidea arriskutsua dela Latiorrora doazen autoen abiadura dela eta.<br>• Udaletik adierazi zaio zebrabidea margotuko dela eta Galmaka irteera stop seinalea ipiniko dela.<br>• Edukiontzia ipintzeko beste leku bat aztertuko dute teknikariek. | • Desde el Ayuntamiento se le informa que ya está adjudicado la instalación de alumbrado en Atxe, Launtxu y curva de Lusurbeilanda. Se ha optado por la solución de instalar luminarias solares que se irán extendiendo al resto del municipio.<br>2.- Vecino comenta el estado de la incorporación de la pista de lusurbeilanda con la carretera, preguntando si no se puede subir un poco la arqueta para que no salga todo el agua y salgan las piedras.<br>• Desde el Ayuntamiento se le contesta que se va a hormigonar y canalizar el agua a la arqueta.<br>3.- Vecino en representación del barrio de Galmaka comenta las dificultades en la salida del barrio a Latiorro. Comenta que no está marcado el suelo y que la gente aparca sin miramiento alguno.<br>Del mismo modo indica que con la instalación de los nuevos contenedores de basura es complicado acceder a ellos por tener la boca de llenado situada hacia el monte.<br>Además, indica que el paso de cebra más cercano a la autovía es peligroso por la velocidad de los vehículos que acceden a Latiorro.<br>• Desde el Ayuntamiento se le informa que se va a proceder al pintado de un paso de cebra y señal de stop en la salida de Galmaka.<br>• Se revisará por los técnicos otra posible ubicación del contenedor. |
| 4.- Lursurbeilandako auzokide batek dio ikastolatik gertu asfaltatu gabe utzitako 300 metroko espazio bat dagoela eta oso egoera kaskarrean dagoela.<br>Bideetako ertzetan hosto asko dago. Esan duenez, garai batean ura botatzen zuen ekortze-makina igarotzen zen hilean behin, edo hilabete eta erdian behin.<br>• Udaletik jakinarazi zaio udalerri osoko asfaltatze-beharren ikerlana egingo dela beharrizanak eta lehentasunak finkatzeko.<br>• Garbitze-lanei dagokienez, abisua emango zaio zerbitzuaren esleipena duen enpresari. | 4.- Vecino de Lursurbeilanda apunta que desde la ikastola existe un espacio de 300m que no se asfaltaron y que está en mal estado.<br>Comenta además que hay muchas hojas en las esquinas de los caminos. Antiguamente comenta que se hacía con una barredora con agua cada mes o mes y medio.<br>• Desde el Ayuntamiento se le informa que se va a realizar un estudio de las necesidades de asfaltado del municipio a fin de poder establecer una previsión de necesidades y prioridades.<br>• En cuanto la limpieza se pasará información a la empresa adjudicataria del servicio. |

| | |
|---|---|
| 5.- Auzokide batek salatu du zuloak daudela Kasille eta Altamira artean. | 5.- Un vecino denuncia la presencia de baches en la subida a Kasille y Altamira. |
| 6.- Auzokide batek adierazi du kexak jaso dituela haren basetxera hornigaiak eramatera joaten diren kamioiengandik, errepidean sartzen diren adarrek kamioien toldo edo olanak urratzen dituztelako.<br>• Erantzun zaio Udalak areketako sasiak garbitzen dituela, baina partikularren jabetzako eremuetan haiek dira hirugarrenei eragindako kalteen erantzuleak. | 6.- Vecino comenta que tiene quejas de los camiones que acceden a su caserío con suministros por la presencia de ramas cercanas a la carretera que rompen los toldos de los camiones.<br>• Se le responde que el Ayuntamiento realiza el desbroce de cunetas y que si son de particulares correspondería a estos que esos árboles perjudicaran a terceros. |
| 7.- Auzokide batek galdetu du ea aukerarik dagoen Arrañoko herri-mendian sasiak garbitzeko aukerarik dagoen.<br>• Erantzun zaio Udalaren asmoa dela sasiak AFA-rekin lankidetzan garbitzea eta hango bidexkak ere txukuntzea. | 7.- Vecino comenta la posibilidad de realizar algún desbroce en el monte comunal de Arraño.<br>• Se le responde que es intención del Ayuntamiento en colaboración con la DFA el efectuar un desbroce y repaso de pistas en esa zona. |
| 8.- Zabaleko auzokide batek azaldu duenez, Elorritxuganetik jaisten den bidexkan ur asko datorrela beherantz euria egiten duenean, neguan arriskutsua dela eta, gainera, betoizko areka ez dela behar beste garbitzen.<br>• Udaletik informazioa jaso da eta ikuskapen bisita egingo da, ikusteko zer egin daitekeen. | 8.- Vecino de Zabale expone que desde la pista que baja de Elorritxugane baja mucha agua cuando llueve, siendo peligroso en invierno. además de que la cuneta de hormigón no se limpia con la frecuencia necesaria.<br>• Desde el Ayuntamiento se toma nota y se acudirá para ver que solución tomar. |
| 9.- Auzokide batek informazioa eskatu du herri-mendien kudeaketaren inguru.<br>• Udalaren aldetik adierazi diote basoberritutako 40 hektareetatik, % 30ean hostozabalak landatu direla eta gainerako % 70ean koniferak. | 9.- Vecino pide información de la gestión del monte público.<br>• Por parte del ayuntamiento se le comenta que de 40 hectáreas que se han plantado el 30% de frondosa y 70% coníferas. |
| 10.- Auzokide batek basurdeen problematika ekarri du gogora; gorantz doaz kopuruan, eta gero eta kalte handiagoak eragiten dizkiete nekazariei.<br>• Erantzun zaio AFA-ren erantzukizuna dela eta Arabako Lurralde Historikoan Basurde-populazioak Kudeatzeko Planean azaltzen dela problematika hori osorik. Duela gutxi argitaratu da plana.<br>• Laudio ez dago ohiko ratioetatik gora, beharrezko uxaldiak egiten dira eta uxaldiek espero den eraginkortasun tasa izaten dute. | 10.- Vecino comenta la problemática con los jabalís, que han aumentado en número y han provocado daños a la agricultura.<br>• Se le responde que es responsabilidad de la DFA y que en el Plan de Gestión para la población de jabalí en el territorio histórico de Álava publicado recientemente se expone toda esta problemática.<br>• Laudio no está por encima de los ratios y se dan las batidas necesarias teniendo estas una efectividad alta. |
| 11.- Auzokide batek adierazi du Lamuza parkea eta bertako zuhaitz espezieak direla bere pasioa, baita Arrañorako igoera natura espazio gisa. Adierazi dute balitekeela Arrañon dagoen abere karga handiegia | 11.- Vecino comenta que tiene una pasión que es el parque de Lamuza y las especies de árboles que tienen y la subida a Arraño como espacio natural. Comentan que la carga ganadera en Arraño puede ser excesiva. Que |

| | |
|---|---|
| izatea. Kontuan hartu behar da ingurune hartako aberastasun naturala.<br>• Udaletik adierazi dute joan den urtean atsedenaldiak ezarri zirela udan nahiz neguan kalterik ez eragiteko. Urte honetan ere egingo dira atsedenaldi horiek, eta ezarritako ratioen arabera, abere-karga egokia dago. | se tenga en cuenta la riqueza natural del entorno.<br>• Desde el Ayuntamiento se le comenta que desde el año pasado se han comenzado a hacer descansos estivales e invernales en la zona para evitar daños. Este año también se va a hacer y que la carga ganadera es la correcta en base a los ratios establecidos. |
| 11.- Auzokide batek adierazi du Libanoko zedro bat moztu dela probalekutik gertu. Jakin nahi du zergatik moztu den, teknikariak txostena eman ote duen, nork moztu duen eta zer egin den egurrarekin.<br>• Erantzun zaio udaletxean birpartzelazioa egiteko eta partzela bat ixteko eskaera jaso zela partikular batengandik. Moztu behar izan zen ez zegoelako beste aukerarik; gainera, zedroak harmailetako plaka apurtu zuen, baita probalekuko betoi plaka bera ere. Horrez gain, adierazi du zedroaren ondorioz mantentze-lanak egin behar zirela etxeko teilatuan, eta segurtasuna dela-eta, ezin da hori egiten jarraitu. | 11.- Vecino expone que hace pocos días se ha talado un ejemplar de Cedro de Líbano en el carrejo. Pregunta por qué se ha talado, si ha tenido informe técnico, quién lo ha talado y qué se ha hecho con la madera.<br>• Se le contesta que se recibió en el ayuntamiento una solicitud de reparcelación y cierre de parcela de un particular. Se tuvo que talar ya que no se podía realizar de otra manera y, además, el cedro había roto la placa de las gradas y en la placa del hormigón del propio carrejo. Además, comenta que se le realizaban a la casa trabajos de mantenimiento en el tejado por el cedro y por seguridad no se puede seguir realizando. |

Alkate-udalburuak bukatutzat jo du batzarra 19:45ean / *El Alcalde-presidente da por finalizada la asamblea siendo las 19:45.*